

ZAKILIXUT



Txikienarentzat Arotz-Eneko oparia


*Martin Lizardik
bizikleta bat jaso zuen
Kutxako
arduradunen eskutik,
ingurumen eskolara
joandako 20.000.
ikaslea izateagatik*

EZOHIKO giroa zegoen atzo Arotz-Enea Ingurumen Hezkuntza Zentroan. Gipuzkoa-Donostia Kutxak 1993an etxe hori zabaldu zuenetik 20.000 ikasle igaro dira handik, eta horren ondorioz, Kutxako arduradunetz gain, kazetariak eta argazkilariak ziren non-nahi. Egunotan Arotz-Enean den ume taldea — Alkiza, Albiztur eta Gabiriakoak —, baina, lasai-lasai ageri zen jolasean.

Bazkaldu ere betiko moduan egin zuten, gustura-gustura. Nahi dutena jartzen baitiete bertako sukaldariak, Maritxu arduradunak esan zigunez. “Hona pare bat egunetarako datoz, eta ez dugu nahi izaten beraiekin borrokan ibili jan nahi ez dutelako. Horregatik, gustatzen zaiena ematen diegu”.

Gipuzkoa osoko ikasleak joaten dira Etxarri herri koxkorrera, Nafarroako Larraun bailarara. Umeak landa guneetako kulturara hurbiltzea du helburu Kutxaren proiektuak, eta horretarako, bizpahiru egunetan hainbat ekitaldi dituzte: inguruko basoak ezagutu, baserritarren lanak bertatik bertara ikusi, ekosistemaren aberastasuna ikertu.

Iruñeko biologo talde batek gidatzen ditu naturaranzko hurbiltze horretan. Patxi Ezkizoz Kutxako Gizarte Ekintzako alorreko arduradunak Arotz-Enearen garrantzia



EDURNE KOCH



Goian, Martin Lizardi, Arotz-Eneko 20.000 ikaslea. Ezkerrean, haurrak Arotz-Eneko jolaslekuan, atzo.

tzeko. Horretarako ere badu xarma Arotz-Eneak; eta azpiegiturak, noski: frontoia, belarrezko futbol zelaia, igerilekua, pin-pon mahaiak, mahaiko futbola...

Bazkaldu ondoren jakin zuten Arotz-Enean egunotan dauden umeek zergatik zegoen horrenbeste jende atzo instalazioetan. “Txirrinda bat zozketatuko dugu zuen artean. Zuetako bat baita hona etorri den 20.000 ikaslea”, azaldu zien Jesus Mari Alkain Kutxako zuzendariak. Begirale batek atera zuen papera: Martin Lizardi. Bi urte eta erdi besterik ez

dituen umetxoa atera zen garaile, eta, ziurrenik, ez zaio erraz ahaztuko Arotz-Enea, bizikletaz gain, denen txaloak jaso baitzituen txikiak.

Ondoren, Kutxako arduradunek gizarte ekintzaren garrantzia nabarmendu zuten, eta gogoratu Kutxak 4.364 milioi pezeta bideratuko dituela aurtun gizarte eta kultur proiektuetarako, iaz baino 800 milioi gehiago; hain zuzen ere, gipuzkoar bakoitzeko 7.400 pezeta urtean.

I. Petzarroman
ETXARRI-LARRAUN

azpimarratu zuen: “Hona datozen umeek ikusten dute badela beren kale eta etxeetatik harantzagoko mundu bat. Ardiak eta behiak gertutik ikusten dituzte, eta baita mamia eta gazta nola egiten den ere bertako baserrietan. Txoriak behatzeko lekutik hegaztien joan-etorriekin gozatzen ahal dute”. Horrela lortzen baita Arotz-Enearen helburua: umeak ingurunea-

ren garrantziaz eta bakoitzak alor horretan duen erantzunkizunaz jabetzea.

Aisialdi lekua

Arotz-Enea ingurugiro zentroa izateaz gain, Kutxaren udalekuetarako lekua ere bada, Rivabellosa itxi zutenetik. Horrela, hil honen bukatetik aurrera ehunka ume jasoko dituzte 15 eguneko aisialdia igaro-

Servicio Inmobiliario
KURSAL, S.L.
Inmobiliar Zabitzuak

ETXEBIZITZAK SALGAI
NAFARROAN: ANDOSILLA / ARELLANO / BIANA / CAPARROSO / CORELLA / GOIZUELA / IRURTZUN / LARRAGETA / MILAGRO
ERRIOXAN: AUTOL / CALAORRA / STO. DOMINGO / VIGUERA
DONOSTIA: ANTIGUO / LARRATXO / ALDE ZAHARRA / GROS
GIPUZKOAN: ANDOAIN: ETXE ADOSATUA / IGEILDO: BASERRIA
10.000 m. ko lursorakin / LASARTE / ORDIZIA

Tel. 943 293715 / T.Mug. 667 709072